

180 eredu. Eredu informatiboa (Hiri ondasun higiez. errentam. edo azpierreantam. etekinen atxikipen)

Fitxa interneten bistaratu

INFORMAZIO OROKORRA

Aurkezteko epea

Aitortzen den urtea amaitu ondorengo urtarrilaren 1etik 30ra bitartean

Helburua

Aitorpenaren urtean ordaindu eta atxiki diren zenbatekoak aitortzen dira.

[Informazio gehiago](#)

Nork tramitatzen du

- OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA
- Zerga Kudeaketako Zuzendariordetza Nagusia
- Zuzeneko Zergak Kudeatzeko Zerbitzua

Nori zuzenduta

Aurkeztera derrigortuta daude jarraian aipatuko diren pertsona fisikoak, juridikoak eta gainerako entitateak, herri administrazioak barne:

- Honako hauek ordaintzen dituzten atxikitzaera edo kontura ordaintzera behartutako subjektuak: ondasun higiezin hiritarren errentamendutik edo azpierreantamendutik eratorritako atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errentak edo errentamenduak, salbu pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek jasotzen dituzten eta higarien etekintzat hartzen diren higiezin hiritarren azpierreantamendutik eratorritako errentak.

- Honako hauek ordaintzen dituztenak: 2014ko urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaz onartutako PFEZaren Erregelamenduak 94. artikulua h) letan eta 1997ko ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretuaz onartutako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduko 54. artikulua i) letrako lehen hiru kasuetan eta n) edo o) letretan jasotakoaren ondorioz atxikipenari edo konturako sarrerari lotu gabe dauden higiezin hiritarren errentamendutik edo azpierreantamendutik eratorritako errentak edo etekinak.

- Honako hauek ordaintzen dituztenak: 2014ko urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaz onartutako PFEZaren Erregelamenduak 94. artikulua h) letan eta 1997ko ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretuaz onartutako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduko 54. artikulua i) letrako lehen hiru kasuetan eta n) edo o) letretan jasotakoaren ondorioz atxikipenari edo konturako sarrerari lotu gabe dauden higiezin hiritarren errentamendutik edo azpierreantamendutik eratorritako errentak edo etekinak.

Baldintzak

Aitortzen den urtean hiri ondasun higiezin errentamendutik edo azpierreantamendutik datozen etekinak ordaintzea.

HASIERA ETA ESKAERA

Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

Paperean aurkezteko eredu (180 eredu ez da betegarria gure webgunean, eta eredu hau entitate laguntzaileetan edo herritarren arretarako bulegoetan aurkeztuko da):

[180 eredu](#)

Aurkeztu beharreko agiriak

Eskaera moduak

» Internet » Presentziala

Internet bidezko eskaera

A) [Gipuzkoataria](#) erabiliz (pasahitza edo sinadura elektronikoa sartuta) [Zergabidea](#) programatik lortzen den fitxategia bidaltzen da.

B) Gure [Zergabidea](#) programaren bitartez, kontraste datu bat sartuta, programan lortzen den fitxategia bidaltzen da.

C) Editran

Tramitazio elektronikorako beharrezko identifikazioa

» Ziurtagiria eta B@KQ » Pasahitza » Kontraste datua

Zuzeneko arretarako bulegoak

1º) [Entitate laguntzaileak](#)

2º) [Herritarren arretarako bulegoak](#)

Inprimakiak web orrian eskura daitezke. PDF artxibo hauek, imprimatuta, nahikoa dira aitortpena aurkezteko.

ARAUDIA

[677/2014 Foru Agindua](#), abenduaren 23koa, 180 eredu eta hori aurkeztu eta ordaintzeko moduak eta epeak onartzen dituena. (PDF)

[Akats zuzenketa](#). 677/2014 Foru Agindua, abenduaren 23koa, 180 eredu eta hori aurkeztu eta ordaintzeko moduak eta epeak onartzen dituena.